


FAGOR EDERLAN TAFALLA S. COOP

Zaragozako errepidea Z.G. 31,300 Tafalla



FAGOR EDERLAN TAFALLA Sozietate Kooperatiboa establezimendua (helbidea: Zaragozako errepidea z.g., Tafalla) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenei lotuta dago (horren bidez, substantzia arrisksuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dira) BEHE MAILAN, eta 7. artikuluan aurreikusten den jakinarazpena egin dio Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari, artikuluko horren 1. apartatuan ezarritako edukiekin.

Establezimenduaren jardura

Burdina galdatzea motor-blokeak fabrikatzeko.

Azken bisitaren eguna

2025eko urriaren 5a, asteartea

Balizko istripu larriak eta sor ditzaketen eraginak

Fagor Ederlan Tafalla Sozietate Kooperatiboa enpresaren ekoizpen-instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenerako kaltegarriak daude. Establezimenduaren kanpoaldean eragina duen istripu larri bat eragin dezakeen kasurik kaltegarriena DMEA biltegiaren kanpoko BLEVE sutea da. Pertsonak bi kalte izan ditzakete: batetik, erreduren ondoriozko kalteak eta bero-igorpenen ondoriozko heriotza-arriskua, eta, bestetik, leherketaren ondorengo presio-uhinen eta jaurtigaien ondoriozko kalteak. Establezimenduaren kanpoaldean badaude lurzorua/ura kutsatzeko beste kasu ez hain larri batzuk.

Instalazioetako substantzia arrisksuak

Instalazioan honako neurri hauek hartu dira:

- Suteak detektatzeko eta automatikoki itzaltzeko sistemak
- Karbono monoxidoa detektatzeko sistemak.
- Alarma-sakagailuak eta abisu-sistemak.
- Isuriak arintzeko bitartekoak.
- DMEArein isurtze atmosferikoak prebenitzeko sistema
- Isuriei eusteko sistemak
- DMEA biltegirako suteetatik babesteko sistema espezifikoak.

Sustancias Peligrosas presentes en las instalaciones

DIMETILETILAMINA		
H225	Likido eta lurrun oso sukoiak	
H302	Kaltegarria irentsiz gero	
H314	Erredura larriak larruzalean eta lesio larriak begietan.	
H332	Kaltegarria arnastuz gero	
H318	Lesio larriak begietan	
H331	Toxikoa arnastuz gero	
H335	Narritadura sor dezake arnasbideetan	

GASOLIOA		
H224	Likido eta lurrun oso sukoiak	
H304	Hilgarria izan daiteke irentsiz gero eta arnasbideetan sartuz gero	
H315	Larruzalaren narritadura eragiten du.	
H332	Kaltegarria arnastuz gero	
H351	Susmatzen da minbizia eragiten duela.	
H373	Organo jakin batzuei kalte egin diezaieke esposizio luze edo errepikatuetatik	
H411	Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin	

Inguruko herritarrei/jarduerari abisatzeko modua

Lantegian istripu larriren bat eragin dezakeen ezbeharren bat gertatuz gero, inguruko enpresei abisatu eta jakinaraziko zaie sirena akustikoaren bidez, polizia-autoetako megafoniaren bidez, irrati eta komunikabideen bidez, bai eta telefonoz ere inguruko instalazioei, hartu beharreko neurrien berri emateko.

Nola jokatu istripu larriak izanez gero

Industrialariak neurri egokiak hartu behar ditu, eta 112 zenbakira deitu, istripuaren ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezten. Istripu larriaren izaeraren arabera neurri hauek hartuko dira: Konfinamendua edo ebakuazioa/urruntzea.

Konfinamendurako eta norberaren babeserako jarraibideak

- Kalean izanez gero, babes itzazu arnasbideak zapi batekin.
- Itxi itzazu ateak eta leihoak, jaitsi pertsonak eta ahal izanez gero haietatik urrundu.
- Behar izanez gero, jar itzazu zapi hezeak zirrikituetan.
- Ez erabili aireztatze gailuak.
- Ekidin itzazu eraikinetako behealdeak, hala nola sotoak edo garajeak.
- Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada.
- Tokiko irratiei entzun eta gomendio eta jarraibideei jarraitu

Urruntzeko eta babesteko jarraibideak

- Bidean, babes itzazu arnasbideak zapi edo trapuekin eta bilatu babesleku bat.
- Behin helmugan, eraikin edo lokal baten barrualdera sartu eta itxi leihoak eta ateak.
- Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada
- Tokiko irratiei entzun eta agintariak helarazten dituzten gomendio eta jarraibideei jarraitu.

Informazio gehiago lortzeko

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua. Agoitz kalea 35 bis. Tel.: 848427171 proteccioncivil@navarra.es

<http://www.proteccioncivil.es/riesgos/quimicos/presentacion>